



Senideak eta ezagunak Okendon bildu ziren eta Mikel Kastresana eta bere hilketa gogora ekarri zuten.

Mikel Kastresana gogoan

20 urte bete ziren asteartean Mikel Kastresana Donostiako Gipuzkoako plazan hil zutenetik

Ezagunak eta senideak Okendon bildu eta Kastresanaren argazkia, *Mikel askatasun haizea haiz leloa* zuen pankarta, hilketaren berri ematen zuten egunkarietako berri eta Kastresanaren bizitzari buruzko hitz batzuen bidez, lasarteoriara guztien gogora ekarri zuten. Bihar 11:00etan Mikel Kastresanari omenaldia egingo zaio Zabaletan eta parte hartzeko deia egin dute.



Luis Mari Telleria, Euskal Herriko txapeldunen prestatzailea /4

MUSIKA ■ 3

Lasarte-Oria V. Nazioarteko Akordeoi jaialdia Kultur etxean

MERKATARITZA ■ 3

Teknologia berriei buruzko doako ikastaro eta mintegiak

ELKARRIZKETA ■ 5

Plastic rock taldearekin solasean

KIROLA ■ 6

2008-2009 kurtsorako kirol Ludotekaren eskaintza

Elkartasun isilunea astelehenean

Astelehenean, Euskadiko Udalen elkarteak (EUEL) deituta, Lasarte-Oriako udalak Santoñako atentatua eta honen ondorioak gaitzesteko kontzentrazioa egin zuen. Ana Urchuegia Lasarte-Oriako alkatea, hainbat zinegotzi, alderdietako ordezkariak eta herritar ugari batu ziren udaletxe aurrean eta guztien elkartasuna adierazteko isilunea egin zuten.



Argazkia: Txema Valles

M. Berasategi Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Zorion-agurrak



Mercedes

Zorionak Mercedes!! Hamarkadaz aldatu eta gazteagoa zaude. Beti Happy! Zure lagunak.



Luisa

Zorionak Luisita!! Berandak baina je,je. Orain arte bezain gazte jarraitu. Zure lagunak.



Ane

Kaixo pajari, 5 muku handi zure familiaren partetik.



Jokin

Zorionak eta txokolatezko bederatz muku amona eta lengusuen partetik.



Lucas

Zorionak eta muku handi bat familiaren partetik.



Aimar

Zorionak pottoko eta txokolatezko 11 muku potolo. Kiran partetik.



Arai

Zorionak muku handi bat.



Gabriela eta Idoia

Zorionak bikote senideen partetik eta muku asko. Tarta prestatu denok elkarrekin ospatzeko.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisua alokatzen dut, erdialdean, berritua. Tel.: 688 670442/ 680 216645. (Marilu)

• Lasarte-Oria eta ingurunean gela bat hartuko nuke errentan. Tel.: 669 719120 (Julen)

• Garaje bat salgai Zumaburuan. Tel.: 943-37252

Salerosketak

• Volkswagen California furgoneta salgai. T-4 modelua, 2,5 TDI txuria salgai. 2000. urtekoa, guztiz ekipatua eta oso egoera onean, bidaia-tzeko aproposa. Tel.: 649 895858

• Salgai trastero bat Zumaburuan. 5 metro karratu ditu eta lehioa dauka. Tel.: 677 983 068.

• Bigarren eskuko portatilak saltzen ditut. IBM, Toshiba... IBM Thinkpad T40, 40 Gb, 512 Mg. Wifi integratua, CD grabagailua,

DvD irakurlea, 2 portu USB etab. Tel.: 695719084

• Dendan ipintzeko isla motako frigorifiko bat erosiko nuke. Tel.: 696 130549.

• Garajeko marra bat alokatzen da Atsobakarren. Tel.: 943 363524.

• Salgai Megane 1.5 DCI. 132.000km (2003). Egoera oso onean, 6.000 euro. Tel.: 653 709737 (M^lXabel)

Lan-eskaintzak

• Neska euskaldun bat behar da irailaren hasi eta epe luzearako 2 haur zaintzeko eta nohizbehinka etxeko lanak egiteko. Astean 10 ordu, asteleheneetik ostegunera 15:30etik 18:00etara. Tel.: 635755666 (Begoñ)

• Begirale bat behar da ikasturte osoan lanean aritzeko. Balaratuko da: begirale titulua eta esperientzia izatea, trebezia sozialak izatea, informatika ezagutzak. Tel.: 943 371448, posta elektroniko:

koa: zerbitzuak@ttakun.com.

• Txintxarri aldizkariak banatzaileen lan-poltsa bat osatu nahi du. Interesatuak deitu dezatela 943 366858 telefonora edo mezu bat bidali txintxarri@ttakun.com helbidera.

• Pertsona bat behar da haur bat zaintzen laguntzeko. Tel.: 655 700253

Lan-eskariak

• Emakume bat eskaintzen da aitarietako garbiketa lanak egiteko. Tel.: 626 877369.

• Emakume arduratsu bat eskaintzen da etxeko garbitzeko, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Ordutegia: 12:30-15:30. Tel.: 678 853976

• Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Tel.: 634 780514

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4 • www.txintxarri.info

Jaiotzak

Ane Imaz Igea, irailaren 19an.
Elene Martin Armendariz, irailaren 16an.
Julio Manuel Oliveira Godinho, irailaren 15ean.



Guardiak

Ostrala, 26
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 27
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 28
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 29
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteartea, 30
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 1
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 2
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udalzainak 943 362442
Ertzaintza 943 288888
SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia 943376182
Kulturetxea 943376181
Bakezko epaitegia . 943371629
Zerbitzu Sozialak . 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak 943 376180



Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Antzerki eta Sorkuntza I. jardunaldia Gasteizen

Gasteizko udalak antolatuta, Antzerki eta Sorkuntza I. jardunaldia ospatuko da 2008ko urriaren 20 eta 21ean, Villa Suso plazan.

Antzerkiaren sorkuntza nola, zertarako eta norentzat gaiak jorratuko dira. Besteak beste, Andrés Lima, Animalario Antzerkiaren zuzendaria, Ernesto Caballero, antzerki idazle eta zuzendaria, Jose Ibarrola eszenografoa edo Toni Cantó eta Alberto San Juan aktoreak bertan izango dira.

Plaza kopurua mugatua da eta izen ematearen araberako ordenean emango dira. Doanekoa da

eta izena ematea azken eguna urriaren 20 izango da.

Informazio gehiago eskuratzeko 945 161 798 telefonoan edo <http://www.vitoria-gasteiz.org> orrialdean.

I. Argazki Lehiaketa - Emakumeak eta Indarkeria

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak antolatzen du. Argazkiak gutxienez 18x24 cm-koak eta gehienez 20x30 cm-koak izango dira. 30x40 cm-koak luma-kartoi batean muntatuta egon behar dira. Autore bakoitzak gehienez ere 3 argazki aurkez ditzake. Eta ezinbestekoa da 18 urte gorakoa izatea.

Argazki bakoitzaren atzeko aldean lanaren titulua jarri behar da eta itxikito gutunazal bat erantsiko zaio. Horren kanpoko aldean, izenburua azalduko da eta barruan egilearen datuak (izena, helbidea, telefonoa eta NANaren fotokopia) eta aurkeztutako lanaren edo lanen izenburuak agertuko dira. Epea urriaren 7an bukatzen da.

Argazkiak ziurtaturiko postaz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera bidaliko dira. Emakumeen aurkako Indarkeria (Diputazio kalea, 13, 01001 Vitoria-Gasteiz).

Informazio gehiago eskuratzeko 945 151015 telefonoan edo <http://www.alava.net/ifbs> web orrialdean.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Lasarte-Oria V. Nazioarteko Akordeoi Jaialdia bihar

■ Zero Settek, orkestrako bazkidea den Mariano Valles omenduko du

TXINTXARRI

Lasarte-Oria V. Nazioarteko akordeoi jaialdiak soinu beteko du bihar Manuel Lekuona Kulturetxeko areto nagusia. Jaialdiaren aurkezpena irailaren 19an egin zuen Zero Sette Akordeoi Orkestrak eta bertan Zero Setteko Javier Zatarainek, Jone Altuna kulturako saileko arduraduna eta kulturetxeko gerentea den Xabier Goitia lagun, aurtengo jaialdiaren nondik norakoak aurkeztu zituen.

Ezaguna nazioartean

Jaialdia dagoeneko kontsolidatua dago, aurtengoa V. Edizioa du eta nazioarte mailan dauka prestigioa.

Javier Zatarainek esanda koaren arabera, "mundu osoko jendeak etorri nahi izaten du parte hartzerako". Eta honetaz gain, hemendik urte-tarikako gonbidatuak hitzartu eta baieztatutako dauzkatala ere onartu zuen.

Jone Altuna kultura ordezkariak ere hitza hartu zuen. Honek kultura sailak jaialdi honengatik duen ilusioa eta poza agertu zuen aurkezpenean. Era berean, animuak eman zizkien orkestrakoei egiten duten lana egiten jarraitzeko eta udalak beti lagunduko dituela ere aipatu zuen.

Jaialdiko parte hartzaileak

Javier Zatarainek bihar parte



Javier Zatarain, Jone Altuna eta Xabier Goitia Lasarte-Oria V. Nazioarteko Akordeoi Jaialdiaren aurkezpen egunean.

hartuko duten gonbidatuak eta Zero Sette akordeoi orkestrak egin nahi duen omenaldi xumea aurkeztu zituen jarraian.

Honela, Hungariatik dator gonbidatu ospetsuena, Zoltan Orosz. *Accordions Worldwide* aldizkari digitalaren esanetan akordeoi jole hungariarra egungo onenetariko da. 57 urte ditu Zoltan Orosz-ek baina lau urte zituenean hasi zen akordeoia jotzen, beraz, badauka eskarmentua.

Bestetik Sabadelleko Kon-

tsertatorioko Akordeoi Orkestra izango da Kulturetxean. Estatu mailan eta atzerrian sari asko jaso dituen orkestra da eta nahiz eta hamalau jole besterik ez izan soinua indartsu eta anitza du orkestra honek.

Omenaldi xumea

Eta azkenik, orkestrako bazkide den Mariano Valles egin gidoen omenaldiari buruz hitz egin zuen Zatarainek.

Mariano Vallesek 85 urte ditu egun eta 79 urterekin

hasi zen akordeoia jotzen. Omenaldiren bidez, bere zaletasuna, grina eta sasoia azpimarratu nahi ditu Zero Sette akordeoi orkestrak

Bihar Mariano Vallesen trebezia ikusteko aukera egongo da. Bere irakasle izandako Aitor Lasarekin batera hasiera emango baitiote aurtengo jaialdiari.

Beraz, musikaz gozatu nahiez gero, bihar aukera aparta izango da 19:30etatik aurrera Manuel Lekuona kultur etxean. •

MARGOA ETA MARRAZKIA

Margo eta marrazki ikasturte berria

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira Manuel Lekuona Kultur Etxean. Aurten eskolak astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:30etatik 20:30etara izango dira eta larunbat goizetan 9:30etatik 11:30etara. Txikienek marrazten ikasteko aukera izango dute larunbatetan 11:45etatik 12:45etara. Oraindik izena-emateko epea zabalik dago, beraz ikastaro hauetan interesa duenak edo informazio gehiago nahi izanez gero, kultur etxetik pasa behar du. •

SENTSIBILIZAZIO ASTEA

Espetxe Pastoraltzak Mesedeetako Amaren eguna ospatu du

Espetxe Pastoraltzak, aurreko urteetan bezala, Mesedeetako Amaren festaren inguruan Sentsibilizazio Astea ospatzen ari da, irailaren 21ean hasi eta igandearen amaituko dena. "Espetxeak, presoak, biktimak etab. dira gure kristau-elkarteko piraiztaileak, sufritzaileak, eta horiek dira gure elizbarrutiko pastoralgintzaren lehen-tasunezko helburua", dio Pastoraltzatik helarazi duten oharrak.

"Espetxe Pastoraltzan dabilzan pastoralgile guztiak dakite familiako bat preso sartzen dutenean, honek beraiantzat eta familia guztiantzat dakartzan ondorio larriak zeintzuk diren. Preso eta familien artean gehien entzun ohi den kexua, atxilotzeak berarekin dakarren gaitzik nagusiaren atxilotua familiarengandik urruntzea dela. Alegia, familiaren egoiztazatik zenbat eta gehiago urruntzen duten presoak, are eta mingarriago gertatzen da arazoa".

Elizbarrutiak preso eta familien arteko erreallitate "penagarriaz" jabeturik, aurtenean Mesedeetako Amaren Eguna dela eta, Espetxeratuetik Sentsibilizazio Astea ospatzen ari da. "Gure anai-arreba hauek guztien egoeraren, itxaropen eta aukeren berri harat-honat zabaldu eta ezagutze-ara ematearren ospatzen dugu sentsibilizazio astea". Pastoraltzako kideek garbi utzi nahi dute, sentsibilizazio astea dela eta ez dirua biltzeko astea. •

Merkataritza

Doako ikastaro eta mintegiak

Merkatarientzako Laguntza Teknikoko Kabinetetik (MLTK) jakinarazi nahi dute Eusko Jaurlaritzako Industri, Merkatal eta Turismo Sailak doako ikastaro eta mintegi multzoa antolatu duela.

Plan honen helburua merkatal sektorea berritu eta hau profesionalizatzeko marko bat sortzea da. Horretarako birziklatze profesionala eta sistema informatiko eta kudeaketa teknika berriak barneratzen saiatuko dira. Garrantzia berezia emango zaio berrikuntza eta kalitateari. Ikastaro eta mintegiak merkatariek teknologia berrien arloan dituz-



Sistema informatiko eta kudeaketa teknika berriak irakatsiko dira.

ten beharrak asetzeko bereziki prestatu dira.

Kurtsoak ondorengoak

dira: bi orduko mintegi estrategikoak, 10 edo 20 ordu online bidezko formakuntza,

merkatariaren esperientzia berritzailei buruzko 2 orduko mintegiak, merkataritzako kalitatearen zirkuluen inguruko 2 orduko mintegiak eta berdintasunari buruzko 2 orduko 2 jardunaldi.

Kurtso eta mintegietan izena emateko edo informazio gehiago behar izanez gero www.dendanet.com helbide elektronikoa egin daiteke edo 943 45 63 33 eta 900 500 900 telefonoetan.

Aldi berean gogorarazi nahi dute MLTKren zerbitzuak doakoak direla merkataritza guztiantzat eta negozioaren kudeaketa, dirulaguntzak, prestakuntza eta abarren inguruko zalantzak eta kontsultak egin ditzakete bertan. •

Harri jasotzen txapeldunak Zelai Ederren

■ Aimar Irigoien eta Mari Jose Sardon Euskal Herriko txapeldunak entrenatzen ditu Luis Mari Telleriak. ■ Errezilgo kirolariak apustu historikoa du igande honetan Tolosan Izeta II.ren aurka.

Lasarte-Oriako Zelai Eder etxeko sotoan pisu eta neurri askotako harriak daude pareta ertzean, eta harri-jasotzaileekin lotutako kartelak eta egunkarietako orrialdeak horman itsatsita. Hor aritzen dira harriak jasotzen Luis Mari Telleria, bere seme Urtzi, Iraitz eta Beñat, Mari Jose Sardon eta Aimar Irigoien, azken biak aurtengo Euskal Herriko txapeldunak.

Jon ALTUNA

Aste honetan jarri dute Zelai Eder etxeko pareta batean igandean, irailak 28, Tolosako zezen plazan jokatuko den desafioaren kartela. Aspaldian izan den haundiena da: eguerdiko 12etatik aurrera Aimar Irigoien eta Izeta II. harri-jasotzaileek neurtuko dituzte indarrak. Lan luzea dute, 10 minutuko hiru tandatan 11 arrobako (137,5 kilo) harri kubikoa nork gehiago altxa.

Bi harri jasotzaileak omen daude apusturako ondo prestatuak. Luis Mari eta Urtzi Telleria lasarte-oriarrak Aimar Irigoien-i laguntzen ari dira, Zelai Ederren prestatu dute ahalik eta ondoen apustu historiko honetarako.

Ikusmin handia

Bi harri jasotzaileek 20.000 euro jarri dituzte jokoan, sekula herri kirolean jokatu den kopuru handiena eta ikusmin handia sortu du kirolzaleen artean.

Azken hilabeteotan trote handia ibili dute Zelai Edergo harriek. Telleria aita-semeek izan dituzte desafio eta erakustaldiak, Xoxokan eta Mutrikun besteak beste,

baina guztien artean garrantzitsuena igande honetan Aimar Irigoienek daukan erronka da. Gogor aritu da entrenatzen Zelai Ederren, astean birritan, igandean ahalik eta ondoen jarduteko.

Urtzi Telleriaren laguna da Aimar eta berarekin batera aritu dira Luis Mari aita, Aimarren beraren osaba, masajeak ematen Bixente Artola eta Battista Kortajarena, halterofilia entrenatzailea, besteak beste.

Pozik egoteko moduan da taldea, Zelai Ederren aritu baitira entrenatzen aurtengo Euskal Herriko txapeldun izan diren Aimar Irigoien eta Mari Jose Sardon. Luis Mari Telleriak ez du, dena den, oso gustuko entrenadore deitzea: "Ni ez naiz preparadore sentitzen. Semearen laguna da Aimar eta etortzen hasi zen. Nik soilik lagundu egiten diet. Harria jasotzen badaki berak". Bere esperientzia baliatuz altxatzera-koan akatsen bat ikusiz gero zuzendu egiten du.

45 urte ditu eta oraindik aritzen da lagunarteko desafio edota erakustaldietan. "Aurtengo besotik operatuta geldu egon naiz, eta oraintxe hasi naiz berriro".

Sakrifizio handia

Aimar Irigoien harri jasotzaile gaztearentzat lehenengo desafioa da igandekoa eta gogor ari da entrenatzen. Sekula ez du horrelako prestaketa seriorik egin. Bost hilabete daramatza parrandarik egin gabe, zerbeza bat hartu gabe eta hori bere esanetan "sakrifizio latza" da 22 urteko gaztearentzat, baina merezi duela uste du: "inoiz ahaztuko ez den lan bat izango da".

Lasartera etortzen da entrenatzeraz, astean egun bat edo bitan eta nekatu xamar dibilela aitortu zigan. "Paliza handia hartzen ari naiz". Badaki tanda luzeak direla eta asko sofritu beharra dagoela, baina ondo ikusten zuen bere burua berarekin egon ginenean.

Igeltsero lanetan aritzen da, Aimar: "errietan ari zaizkit baina..." erakustaldi eta txapelketek ez dute profesional izateko adina ematen. "Urtean hiru txapelketa izaten dira eta saririk handiena 500 euro inguru ema-

ten dute, hirurak irabazita ere 1.500 euro..." komentatu zigan.

Errezilgo harri jasotzailearen ustez, "dudarik gabe, profesionalizatzeko balitz askoz ere marka hobekak egitea egongo litzateke. Guk daramagun mar-txa gogorra da, lanean ari egun guztian eta gero harriari heldu". Hala ere, osasun arazorik ez badu segitzeko asmoa du. "Hori bai arazo minimo bat izanda paliza hau ez dago hartzerik, baina momentuan oso ondo sentitzen naiz. Horrelako laguntzaileak dauzkadala poza ematen du gainera segitzeak".

Obelix dirudizu: ehiza, harriak, pisua, bolumen eta indarra... zein da zure formula magikoa?

Nire formula? entrenatzea eta lan egitea, besterik ez da.

20.000 euro jokoan, baina apustua hori baino gehiago da, ezta? Aspaldi ez da horrelako apusturik egin, eta gutxiago 22 urteko



Telleria sendian aita eta hiru semeek dakite zer den harria jasotzea. Neurri, pisu eta forma askotakoak dituzte sotoan.

Errekako harriak

Gaztetxo zela, 13 bat urterekin zaletu zen Telleria: "Ganaduaren zaku pentsuak altxatzen hasi nintzen eta gero errekan bilatutako harriak. Familian ez dut harri-jasotzailearik izan. Kontrakoak ziren gainera. Harri jasotzaileen giroa apustuarekin lotzen zuten, eta garai hartan beldurra zioten".

Harri jasotzaile eta zale izateaz gain xaxatzaile ere bada. Bere hiru semeak gutxi edo asko aritzen dira, baita Aimar eta Sardon ere bere aginduetara. "Seme zaharrena, Urtzi, (22 urte) oso ondo ari da". Iraitz (17 urte) Igel-

doko harria adin txikienarekin jaso duena da, 17 urterekin jaso zuen; utzita egon da, baina aurtengo Bizkaian harri baldar batekin eta erakustaldi pare batean atera da. Beñat (12 urte) Azkorteoko festatan eta Mutrikun aritu da, aurreneko aldiz herriko kanpo".

Etxean denak aritzen badira ere, -Igeldoko harria Luis Mari, Urtzi eta Iraitzek jasota dute- ez dio kirolari etorkizun onik ikusten. "Baserrria galtzen ari den bezala kirol hau ere galtzen joan da. Betidanik baserriko mutilek egin dute, izan diru saiakarak herrietan eskolak jartzeko baina ez dute tiratu".

"Kirol honetan txarrena da kategoriarik ez dagoela" dio Telleriak. "Halterofilian, boxeoan edo judoan pisuaren arabera mailak daude eta hemen ez dago, 20 edo 50 kilo gehiago dituztenekin aritu behar duzu. Horrela zaila da". Bere 200 kiloko harria altxatu du, bere pisuaren hirukoitza, eta harri jasotzaile bakoitzak bere pisuaren bikoitza altxatu behar zuen proban dauka bere markarik onena, 140 kiloko harriarekin.

Aimar ondo ikusten du Telleriak igandeko desafioari begira, baina izetaz ere kontu bera diote. "Lehia gogorra izatea espero dut, ea apustu ona ateratzen den".

Kilo batzuk kendu dituzu?

Mordoxka bota ditut, bai. 10 bat kilo edo gehiago. Orain ez daukat lehen nuen txisparen erdirik ere, askoz hilago nago, nerbio gutxiagorekin sentitzen naiz, baina lan luzea egiteko kiloak bota behar.

Aita eta aitonarekin hasia, nolatan, hemen, Lasarte-Orian?

Orain dela bi urte aita hil zitzaidan eta nire erabakia izan zen. Egin nituen proba batzuek etxean, bakarrik. 19 urterekin momentu gogorra zen. Oso triste, zer egin ez nekien. Urtzi ezagutzen nuen, beraiekin hasi nintzen, ez dakit nola baina eskerrak eman behar dizkiet harri jasotzen ateratzeko lagundu didatenak direlako. Oso gustura nago eurekin. Onak eta serioak dira.

Jon Tejedorri eskaini diozu azken txapela. Ezagutzen al zenuen?

Olaederra kiroldegian, Villabonan entrenatzen ginan, eta behin baino gehiagotan elkarrekin tokatu zitzaigun. Han egindako adiskidea zen.



Urtzi eta Luis Mari Telleria, Aimar Irigoienekin.

gazte bat tartean dela. Apustu gogorra da, ikusmina badauka jendeak eta nik uste historikoa izango dela.

Ez duzu esperientziarik, baina sasoiaren aldetik adin ona al da?

Nik uste, adin aldetik gazte xamarra naizela agian. Hori aditzen diet denei, esperientzia duten harri jasotzaileei ere bai. Indarrak zaildu gabe ditudala, ... probatuko dut eta ikusiko da.

Nolatan atera zen apustua?

Egia esan ez genuen ideiarik apustu honetarako. Desafioa bota zuen Izeta II. baidin bazan 125 kubikoarekin" jokatzeko. Harri handi eta txikitik txapeldun nintzenez, eraginda sentitu nintzen. Aurrena desafioa gure erara bota genion, 150ekoarekin. Gero, ez neukan nik jaisteko gogo handirik, baina jaitsi beharra zen: hura gora etorri zen eta ni behera. Ea zer gertatzen den.

‘Kontzertuak lortzeko batetik bestera mugitu eta aurpegia izan behar duzu’

Plastic Lasarte-Oriako rock taldea dugu. Duela urte eta erdi sortu zen eta aurtengo Donostiako Pop rock lehiaketan parte hartu du hirugarren postua eskuratu. Gainera, bere lehenengo diska taldeak berak ekoiztu du. Hau guztiaren eta etorkizunaren berri jakiteko taldeko kideekin batu gara.

Nola sortu zen Plastic?

Taldeak lehen *Mongrey* izena zuen. Baina talde hori utzi eta 2007aren hasieran talde berria sortu genuen, beste musika eta estilo batekin. Oscar bateria, Josek gitarra eta ni neu Alberto baxuan. Abeslaririk gabe ginen eta, hala ere, abestiak egiten hasi ginen.

Itxigo udararen ostean hasi eta abendurako grabatzen hasi ginen. Sei temako maketa egitea zen asmoa, baina azkenean maketa diska bihurtu zen. Martxoan edo apirillean argitaratu eta maiatzaren 23an lehen kontzertua izan genuen. Eta hamaika bat kontzertu eman genituen Haize Orraziko kontzertuan baina lehen.

Beraz, epe laburrean egin duzue guztia?

Bai, horrela da. Gehien sufritu duena Itxigo izan da. Iritsi, dena ikasi eta grabaketa egin behar izan zuen. 5 ordutako entseguak egiten genituen. Gogorrak izan ziren benetan.

Eta grabaketaren ostean, kontzertuak prestatu. Hilabete batean 6 kontzertu eman genituen. Batzuetan aste bereko ostegun eta ostiralean genituen kontzertuak. Lokaletan 30 pertsonentzarako ohi-tuak ginen eta 700 pertsona zeuden Haizearen Orrazian. Izugarria izan da. Honetaz gain, my space-a www.myspace.com/grupoplastic eta web orrialdea www.plasticband.es ere egin ditugu. Urte erdian lan asko egin dugu.

Noren influentziak dituzue?

60 eta 70 hamarkadako rocka gustoko dugu. Egunkari batzuetan mod estiloa dugula diote, Ocean Color scene, The Who, charlatans edo Brit poparen soinu dugula ere esan dute, Oasis edo antzekoekin parekatu dute.

Eta arrazoi dute hein batean. Soinu britanikoa da, ahots armoniei dagokienez. Baina 60ko rockeko erritmoan oinarritzen gara.

Gainera, ez dugu inoren bigarren zatia izan nahi,

Plastic izan nahi dugu. Dagoeneko estilo pertsonala dugu. Beste talde baten antza hartzen diotela gure musikari, normala da. Ezin da gauza berri askorik egin, gehiena sortua dago.

Abestiak egiterako orduan zertan oinarritzen zarete?

Eguneroko gauzetan eta esperientzietan oinarritzen gara, abesti protesta ere badago. Esate baterako, telebistan agertzen denaren aurka egiten dugu.

Ez dira amodio eta maitasun ezan oinarritzen direnak, baditugu, baina ez da hori gure oinarria.

Nola bihurtu zen maketa diskoan?

Idea aste betean maketa egitea zen. Baina maketak itxura ona zutela ikusita, diskoa egitea pentsatu genuen eta azkenean bi hilabete egon ginen. Talde garrantzitsuek grabatu dute, guk grabatu dugun lekuan, Itxigo de Luca-zen estudioan.

Nolako izan da autoekoizketa-eren esperientzia?

Grabazioa aste betean egin genuen. Nahasketak eta ekoizketa egin behar genituen ostean. Oso zaila izan zen lanetik atera eta estudioan sartzea. Gaueko hamarrak arte egunero, beti gauza bera entzuten, bateriako bonboak, gitarra soinuak, etab. Zoramenen izan zen.

Baina Itxigo de Lucasek esperientzia handia du. Asko lagundu gintuen eta ideiak eman zizkigun.

Ostean, Madrilen kopiak egin genituen, abestiak registratu, jabetza intelektuala izan eta plagiorik ez egoteko. Eta salmentan jarri genuen.

Nolako harrera izan dute taldeak eta diskoak?

Myspace-a dugu eta bertara jende pila sartzen da. 60 bat egunero. Beraz, harrera ona dugula esan daiteke. Gainera, diskoak iritzi onak izan ditu, ez lagunak soilik, egunkariak ere.

Eta ongi saltzen da, nahiz eta kontzertuetan eta ahoz aho saltzen den. 1000 egin genituen eta gutxi batzuk



Aurtengo Donostiako Pop Rock lehiaketako finalean hirugarren postua eskuratu zuen Plastic talde lasarteoritarak.

geratzen zaizkigu. Dendetan ere badugu salgai, Gong-en, baina kontzertuetako ikaragarria da.

Esate baterako, kontzertu batean 30 pertsona egon eta 20 disko saldu genituen, beste batean, Lizarran, Alemaniako bikote batek zazpi cd erosi zituzten. Sinadura eta guzti.

Madrilen ere jo zenuen, ez?

Bai, La boca del Lobon kontzertua eman genuen. Aretoko oso garrantzitsua da, Kiko Veneno, Estopa edo Amaralek jo dute bertan. Ezagunei esker, kontaktuak egin eta hara joateko deitu gintuzten.

Madrileko aretoetan jotzea zail da. Hemen taberna batetara hamar disko edo bidali daitezke, han, berriz, ehun bat dira eta Espainia osokoak, baita musiko ezagunak ere. Mugitu behar zara eta aurpegia izan. Mundu hau horrelakoa da ehun ezezko izango dituzu, egun batean norbaitek sorbaldan emango dizu.

Esate baterako, bateria eta biok, Oscar, Madrileren joan ginen, Radio3 irratiari. *Disco grande* programako Julio Ruizekin egon nahi genuen. Dena prest zegoen lehenago iritsi eta berarekin hitz egiteko. Baina programa hasia zen iritsi ginenerako eta, hala ere, barruraino sartu, bertan egon eta Juliok diskoa izendatzea lortu genuen.

Eta ostean, Donostiako Pop

Rockera aurkeztu zineten, nolatan?

Joseren jefek animatu genituen. Honek lanera eraman zituen diskoak saltzeko eta berak entzun eta Pop Rockera aurkezteko epea irekia zegoela esan zuen. Denbora zegoen bi egun edo eta bidali genuen.

Zenbat kontzertu eman zenituzten lehiaketan?

Bi, finalerdian eta finalean. 40 talde aurkeztu ginen lehiaketara eta 9 aukeratu zituzten.

Finalerdiak Antiguoko Loka aretoan egin ziren hiru asteberetan. Kontzertu bakoitzean hiru talde zeuden eta bakoizetik talde bat aukeratzeko zen finalerako.

Oso zaila izan zen, maila handia zegoen eta gure gusturako onak ziren taldeak atzera bota zituzten.

Eta finalean jotzea nolako esperientzia da?

Ez ginen urduri, finalerdian urduriago ginela esan daiteke. Aukerak, gogoak eta ilusioa genituen.

Gainera, 700 pertsonen aurrean jotzea eta hain areto berezian, ez dakigu berriro suertatuko den.

Hainbeste lan eta hirugarren izatea ez al da gogorra?

Epaileek finalean entzundakoaren arabera aukeratu zuten, 3. postua eman zituzten eta horrekin ados gaude. Esperientziak ikasteko balio izan digu.

Pop rock lehiaketan parte hartzeak ateak irekitzen al ditu?

Hirugarrenak izan ginen! Normalean taldeak mugitzen dira, ez dizute deitzen. Iazko irabazleek ere lekuak aurkitu behar dituztela entzun dugu.

Beraz, hemendik aurrera nola daukazu agenda?

Kontzertuak ditugu bihar Irungo *Tunk!* aretoan bat, eta urriaren 3an Durangon beste bat dugu baina oraindik baieztatzeko dago.

Tunk!-en *Zortak* taldearekin jotzen dugu. Ilusio handia egiten digu, rocker zaharrak eta musikari onak baitira.

Eta diska berria noizko?

Abesti berriak egin nahi ditugu, kontzertuek uzten diguten denboraren arabera noski.

Baina orain garrantzitsuen kontzertuak ematea da, diskoa mugitzea, gure izena ezaguta araztea. Madril, Bartzelona eta Zaragozara joateko asmoa dugu. Hemen leku gutxi dago eta gehienetan egon gara. Kanpora joan behar zara.

Hala ere, hurrengo diskoa osoa izatea espero dugu, hamabi abesti eta diskografikarekin. Diskografia handia edo txikia den berdin digu.

Honetaz gain, manager bila gabilta. Orain arte, Itxigo egin du lan hori eta gogorra da, konpainia handietan egon da, kartelak jarri, lokale-tara joan, etab. •

Nerea EIZAGIRRE

Kirolotako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 27

10:00etan, Ostadar-Hernani (Infantilen Ohorezko maila) Michelinen.

11:30ean, Ostadar-Touring (Emakumezkoen KDT F-11) Michelinen.

15:30ean, Texas Lasartearra-Lazkao (I. Jubenila) Michelinen.

17:15ean, Ostadar-Amaroz K.E. (II. Erregionala) Michelinen.

10:30ean, Antiguoko-Ostadar (Infantil txikiak) Berion (Donostia).

12:00etan, Antiguoko-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila) Berion (Donostia).

17:30ean, Amaroz K.E.-Ostadar (I. Jubenila) Usabalen (Tolosa).

Ingandea 28

16:00etan, Añorga-Ostadar (Emakumezkoen Jubenil eta senior FI I) Rezolan (Añorga).

17:00etan, Juventudes de America-Texas Lasartearra (II. Erregionala) Felix Garin 2.

■ F-7 ■

Larunbata 27

16:00etan, Niasa Corpa-Fortuna kirolan (III. maila) Zubietan.

■ ARETO-FUTBOLA ■

Larunbata 27

17:45ean, ISU Leihoak-Denak Gazte Taberna (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

Ingandea 28

12:15ean, Iralabarri F.C.-Aldaz Hartz Klinika (Euskal Liga) Errekalden (Bilbo).

■ PILOTA ■

Ostirala 26

20:00etan, Erniope-intza (Eskuz binaka I. Jubenila) Alkizan.

Larunbata 27

12:00etan, Intza-Azkoitia (Eskuz binaka II. Seniorra) Michelinen.

12:00etan, Intza-Tartaloetxe (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.



Kirol Ludotekak eskaintza malgua izango du aurtengo ikasturtean

■ 2004. urtean eta aurretik jaio direnek pista eta igeriketa egiteko aukera dute Kirol Ludotekan eta izena emateko epea zabalik dago oraindik

TXINTXARRI

Kirolotako Udal Zerbitzuak 2008-2009 ikasturterako Kirol Ludoteka jarduera eskainiko du, batez ere, lau urte gorako haurrentzat zuzendua izango da. Kirol Ludotekaren helburua da, batetik, haurrak kirolera hurbiltzea eta bestetik, praktikatzen hasi daitezela.

Udal Kirol zerbitzuetatik jakinarazi dutenez, aurtengo Kirol Ludoteka antolatuko dute 2004. urtean eta aurretik jaio diren haurrentzat. Jardueraren arduradunak azaldu duenez, "Kirol Ludotekarekin, jokoaren bidez eta modu dibertigarrian, haurrak kirolaren praktikan hasiko dira".

Eskainiko dituzten kirol jarduerak partaideen adinari egokituak izango direla jakinarazi dute kirol zerbitzuetatik. "Saioak, partaide bakoitzaren nahiaren arabera, Udalaren Kiroldegiko bai Igeriketan bai Pista Balioaniztean garatuko dira. Jarduera askotarikoa izango da eta horretarako material ezberdina erabiliko dira: koltxonek, era ezberdinetako



Pistan eta igerilekuan kirola egiteko aukera izango dute haurrek Kirol Ludotekan.

flotagailuak, baloiak, pilotak, banku suediarra, horma-barrak, porteriak etab."

Eskaintza malgua

Kirol Ludotekaren saioak aste osoan zehar eskainiko dituzte, astelehenetik ostiralera, 18:00etan Pista eta 18:30ean

Igerilekua. Jardueraren arduradunek azaldu dutenez eskaintza malgua izango da. Hau da, "Kirol Ludotekan parte hartzen dutenek, izena emateko unean jarduerara zein egunetan joango diren aukeratzeko aukera izango dute. Haurrak gehienez hiru

egunetan parte hartu dezakete Kirol Ludotekan eta hiru egun aukeratu gero, bi eremuak aukeratu beharko ditu, bai pista, bai igerilekua".

Kirol Ludotekan parte hartu nahi duenak Kirolotako Udal Zerbitzuko bulegoan eman behar du izena. •

Kirolotako oharrak

Emakumeen kirola sustatzeko diru laguntzak

Lasarte-Oriako Udalak kirol federatuen emakumeen partizipazioa indartzeko asmoz, Kirolen Batzordeak 18.000 euroko zenbatekoa duen laguntzen egitasmoa onartu du. Irailaren 30ean amaitzen zaie herriko kirol elkar-teei Kirol federatuen emakumeen partizipazioa indartzeko asmoarekin sortutako laguntzen eskaera aurkezteko epea. Laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak interesaturik dauden elkar-teeentzat eskuragarri daude Udalaren Kiroldegiko bulegoetan.

LOKEko tenis eskola

LOKEko tenis eskolak entrenamenduak hasi ditu eta 7 eta 8 urtetako taldean lekua dago oraindik. Beraz, talde honetan izena emateko epea ireki da, Michelingo kirol gunean egingo da astelehenetik ostegunera, 18:30etatik aurrera.

Buruntz-Azpi arrantza txapelketa

Buruntz-Azpi Elkarteak itsasoko arrantza txapelketa antolatu du. Ingandea honetan izango da ohiko lekuan, Orioko hondartza txikiaren ondoan eta zita 8:30etan izango da. Bilera bat egin ondoren, 9:00etatik 12:30etara arrantza arituko dira. Txapelketa honetan parte hartu nahi duenak Buruntz-Azpi elkartearen eman beharko du izena.

Ostadarreko Futbol Eskola hastear da

Ostadar Kirol Fundazioko kideek jakinarazi nahi dute Futbol Eskolako lehen saioa asteazkenean, urriaren lehenengoan, izango dela Michelingo instalazioetan. Entrenamenduak asteazkenean izango dira arratsaldeko 18:00etatik 19:00ak bitartean, ekainara arte. Haurrak 17:40ak baino lehen ez bidaltzea eskatu dute antolatzaileek.

Lasarte-Oriako korrikalariak arrakasta handia izan dute asteburuan

Aurreko asteburuan Lasarte-Oriako korrikalari askok parte hartu dute ospatu ziren lasterketa desberdinetan. Andoni Illarramendi Usurbilgo Axeri Krosean eta David Martin Urnietako Herri Biran lehenak izan ziren helmugara iristen.

Ingandean, irailaren 21ean, Usurbilen Axeri krosa eta Urnietan Herri Bira ospatu ziren. Bietan izan genituen herrikoak txapeldun Andoni Illarramendi eta David Martin. Beste herritar askok ere parte hartu zuten haien artean Ostadar K.F. taldeko partaideak.

Axeri krosa

Andoni Illarramendi irabazlea izan zen gizonetakoan 0:34:29ko markarekin. Beste herritar asko ere egon ziren ingandean Usurbilen korrika egiten Raul Tejado, Jose Luis

Delgado, Juan Maria Marcos, Mikel Villaroya, Ibon Urdanpilleta, Xabier Esnaola, Eduardo Ormazabal, Aritz Corcuera, Igor Amantegi eta Iñaki Sudupe beste askoren artean.


Herri Bira

Urnietan ospatutako Herri Bira ere herritar bat garaile 29:38ko denborarekin. Ostadar K.F. taldeko David Martin, 9,5eko kilometro luzeko lasterketan ondo ibili zen, bigarren iritsi zenak ia minutu bat beranduago gurutzatu zuen helmuga. Herriko Javi Gil, Pablo Utero, Juan Maria Marcos, Iñaki Blanco, Ruben Carranza, Luis Manuel Urbano eta Juan Mari Gastesik ere parte hartu zuten Urnietako Herri Bira izan da Euskal Herriko lasterketa zirkuituan sartu den lehena. Aldaketa honek partehartzaileen mailan eragina izan du. •

Egunero

Erakusketa

NOELIA CRUJEIRAS margolaria-
ren margoak erakusgai. Jalgi
kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala, 26

Bideoforuma

CANDIDA filma eskainiko dute
hilabeteroko bideoforumaren
barruan emakumeen zentro
zibikoan. Filmaren ostean
Nagore Vazquez psikologoa
izango da filmeko gaiak azter-
tu dituen gonbidatua. Zentro
Zibikoan, 16:30ean, GAZTELANIAZ



Dantzatzeko musika Blamiren eskutik Jalgi kafe-antzokian

BLAMI Djaren emanaldia. Herriko DJ honek dantzatzeko
musika sesio bat (Estilo librea) eskainiko du larunbat ilun-
tzean Jalgi kafe-antzokian.

LARUNBATA 27, 23:00ETAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Larunbata, 27

Jaialdia

V. AKORDEOI JAIALDI INTERNAZIO-
ALA, Zero Sette akordeoi orkes-
trak eta Lasarte-Oriako udalak
antolatuta. Herrikoekin batera
Orosz Zoltán hungariarra eta
Sabadelleko kontserbatorioko
akordeoi orkestra izango dira
Kulturetxean 19:30ean. Sarrera
4 EURO. ELE BIETAN



Igandea, 28

Ipuin-kontalaria

EUSKAL HERRIKO NARRATZAILAEN
FESTA. Ipuin kontaketa, ipuin
kalejira... Pasai Donibanen,
11:00etatik aurrera.



EUSKARAREN 7. MARATOIA

Animatu eta
hartu parte!

Parte hartzeko
aukera asko daude!
Sartu
www.euskararenmaratoian.com web
orrialdean eta eman
zure izena!

Kamisetak ere
dagoneneko salgai
daude Ttakunen eta
Jalgin. Haurrenak 10
euro balio dute eta
helduenak 15.

Informazio gehiago
Ttakunen, (Geltoki kalea 4)
edo
943 371448 telefonoan.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

Fmko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik
11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Odol ateratzeak

Udarako oporren ondoren
hilabete honetan bestetan
bezala odol ateratzeak hilabe-
teko azken astelehenean, irai-
laren 29an egingo dira
Osasun Zentroan, arratsalde-
ko 18:30etik 21:00etara.
Anima zaitzete, odola orde-
zkaezina da eta!

Txokotako argazkiak

Udaran, uztaila eta abuztuan,
Ttakunek antolatutako txoko-
tan egondako haurren argaz-
kiak jasotzen dituzten Cdak
urriaren 6tik aurrera eskuratu
ahal izango dira Ttakunen
ludotekan. Ordutegia:
17:00:20:00etara.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Irailaren 29an Usurbilgo Lan-
bide Eskolan teoria zein
enpresa praktikak osaturiko
OFFICE ikastaro bat hasiko
da. Txekinbide antolatuta
eta honako giza taldeei
zuzendutakoa: Bere lehenen-
go enplegua izan ez duten 35

urte bitarteko pertsonak, 12
hilabete baino gehiago lanik
egin gabe daramaten 40 urte-
tik gorako pertsonak eta lan
egin nahi duten emakumez-
koak.

Informazio gehiago nahi iza-
nez gero 943364600 telefono
zenbakira deitu.

Xumela korua

Ikasturteari hasiera emanez,
gaurtik hasita, astelehenero
bilduko dira Xumela koruko
kideak. Astelehenero arratsal-
deko 19:30ean bilduko dira
Landaberrri BHlko egoitzan.
Interesa duenak agertzea bes-
terik ez du.

Tenerifera bidaia

Biyak Bat zaharren egoitzak
Tenerifera bidaia antolatu du
urriaren 14tik 24era. Hote-
lean mantenu osoa izango
dela adierazi digute arduradu-
nek, baita islaz gehiago goza-
tu nahi dutenek aukerazko
txangoak izango dituztela ere,
hala nola, Teideko parke

nazionalera edo Santa Cruze-
ra. Prezioa 599 eurotako da
eta izen ematea Biyak Bat
zaharren egoitzean egin
behar da. Bidaia buruz
gehiago jakin nahiez gero
bertara gerturatzea besterik
ez daukazu.

San Pedro Parrokiako Kate- kesia

Katekesia egin behar duten
haurren izena irailaren 17tik
aurrera eman behar da San
Pedroko parrokiari. 943 37 30
08 edo 669 76 22 52 tele-
fonoetara deituta egin daiteke.
Ikastaroak larunbatean hilean
behin izango dira lehenengo
mailakoentzat, larunbatero
bigarren mailakoentzat, hiru-
garren mailakoentzat (lehen
jaunartzeakoak) asteaetan eta
5, 6 eta 7. Mailakoak aste-
artetan 18:30ean.

Elkarretaratzea Donostian

Irailak 26an, ez da Lasarte-
Orian azken ostiralero elka-
rretaratzerik egingo.

Aldiz, Preso, Errefuxiatu eta
Errepresaliatuen Senideek,
Donostiako Konstituzio plaza-
zan elkartuko dira 20:00retan.
Zinemaldiaren atarian egin
asmo dute elkarretaratzea.
Eta, parte hartzea deitu dute.

Oriatarren bazkaria

Irailaren 28 igandean urtero
moduan oriatar eta lagunak
bazkaria egingo dute Txixar-
din Beltxa jatetxean.
12:00etan Solano musika
eskolako trikitilariak girotuko
dute goiza eta ondoren
12:30ean (salbuespen
moduan) On Ramon Uribee-
txeberriak zuzenduriko meza
izango da Karmengo kaperan.
Bertan Pilar Catalina sopra-
noa eta pianoan Amaia
Dorronsoro izango dira.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txinxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Aterpearen eskerrak

Factory azoka antolatzen
lagundu zutenei eskerrak:
Lasarte-Oriako udalari bere
disposizioagatik eta finan-
tazioagatik; Landaberrri
ikastolari megafonia uztea-
gatik; Rural Kutxari logisti-
kagatik; GATC-ri, Gorkaren
bidez antolaketa kordinatu
zuelako; Zumaiako Zelairi
bere talasoterapiari bi ego-
naldi eskaini zizkigulako
guk bertaratuen artean zoz-
ketatu ahal izateko; Jon
Lasa eta bere ikasleei, musu
truk festa girotu zigutelako;
eta nola ez, bertara hurbil-
du ziren guztiei.
Guztiei, mila esker!

Dantza garaikidea kalean ikusgai

■ Maider Oiartzabal dantzariak Baionan *Dantza Hirian* jaialdian dantzatuko du

TXINTXARRI

Maider Oiartzabal dantzari lasarteoriarrak Asier Zabaleta koreografoarekin lanean ari da III. Dantza Hirian jaialdian. Jaialdi hau mugaren bi aldeetan ospatzen da eta hilaren 19an Donostian hasi eta 27an, bihar, Baionan amaituko da. Maiderrek Bihar jaio nintzen lanean dantza egingo du Baionan arratsaldeko 18:00etan, Lacarre Plazan.

Maiderrek kontatu digunez, Asier Zabaletak euskal dantza eta dantza garaikidea uztartu ditu *Bihar jaio nintzen* lanean. "Uztarketa oso ona egin du. Tradizioaren eta garaikidearen lenguaia oso ondo ezagutzen ditu, ez bakarrik pausoak, espazioa, denbora... Uztarketa oso naturala atera da eta hori izan da jendeari gehien gustatu zaiona".

Dantza Hirian ekimenak dantza garaikidea kaleratzen

du eta aurten Ertza, Asier Zabaletaren konpainia hirugarren edizio honetan parte hartzeko gonbidatu dute aterpean programarako eta hiru emanaldietan presente egongo den bakarra izango da: "ekimen honek aurrerapauso bat eman du aurten", dio Maiderrek, "hau da, konpainiak hilabeteko epea du lan bat sortzeko, lan-tzeko eta kaleratzeko. Hilabetez lau ordu eta erdiz aritu gara entsaiatzen egunero, asko dirudien arren, oso gutxi da".

Dantza kalera

Dantza Hirian jaialdiak dantza garaikideko lanak aurkezteko kalea hartzen du eszenatoki. Dagoeneko bi saio egin ditu Maiderrek *Bihar jaio nintzen* lanarekin, bat Donostian, beste Irunen eta harrera ona izan dutela azaldu digu: "oso esperientzia positiboa da kalean dantza egiteak, gertutasun handia dago publikoarekiko eta harreman berezia sortzen da.



Donostiako emanaldia oso jendetsua izan zen. Jendeak bada-ki gu talde gonbidatua garena eta nabaritzen zen lan hau ikusteko interesa zutela. Jende-ari asko gustatu zaio".

Maiderrek koreografoak

Baionan antolatutako hiru egunetako audiziora aurkeztu zen. Asierrek lau interprete besterik ez zituen behar eta horien artean lasarteoriarra aukeratu zuen. "Koreografo heldua da eta pribilegio bat da

Asierrekin lana egitea. Badaki interprete bakoitzari zer eskatu, bakoitzaren puntu fuerteak ikusten eta ateratzen daki. Nik inoiz ez dut jende aurrean abestu eta lan honetan abesten jarri nau".

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
%40 - %75
2008-09

Ona eta merke

Edozein lasarteoriatarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Ganbo kalea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 19ra

Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aeknet.net
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 26ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org



LASARTE-ORIAKO UDALA